BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2017/12/21

# Ekonomiaren Garapen Saileko 2018ko aurrekontua aldaketa barik aurkeztuko da Osokoan

Bizkaiko Lurraldeko 2018ko Aurrekontu Orokorrak eztabaidatzeko azken jardunaldia gaur goizean hasi da, Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Sailaren gastu proiektuaren aurrean aurkeztu diran zuzenketa-eske partzialen bozketeagaz. Batzarretako oposizinoko taldeek aldaketarako 100 proposamen aurkeztu ditue, baina bakarra be ez da onetsi.

Foru Gobernua eusten daben Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek daukien gehiengoa nahikoa izan da jardunaldiko lehenengo saio honetan aurkeztu diran zuzenketa-eske guztiak atzera botateko. Bizkaiko Udalek gauzatzen daben turismoaren sustapenagaz erlazionauta EH Bilduk aurkeztu dauen zuzenketa-eske batera gerturatzeko ahalegina egin da, baina azkenean ez da akordiorik lortu, esleitutako kopuruan ez diralako ados jarri.

Batzordean egin dan eztabaidaren ostean, Imanol Padrales Foru Diputatuak zuzentzen dauen sailak 269 milioi euroko aurrekontua eroango dau datorren abenduaren 28an Gernikan egingo dan Osokora, Bizkaiko Foru Aldundiko sailek aurkeztu daben bigarren altuena. Aurrekontuaren zenbatekoa igaz aurkeztutakoa baino %5 handiagoa da, eta sail guztien aurrekontuaren %21,9 hartzen dau.

Eztabaidea amaitu danean, oposizinoko taldeek Osokorako erreserbau ditue euren zuzenketa-eske partzialak, bertan eztabaidatzeko.

---

NOTA DE PRENSA

21/12/17

# El presupuesto del área de Desarrollo Económico para 2018 será presentado en el Pleno sin cambios

La última jornada de debate de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para 2018 ha dado comienzo con una primera sesión donde se han sometido a votación las enmiendas parciales presentadas al proyecto de gasto del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial. Un total de 100 propuestas de modificación han sido presentadas por los grupos junteros de la oposición, de las cuales no ha sido aprobada ninguna.

La mayoría representada por los grupos junteros que sustentan el Gobierno Foral, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, ha sido suficiente para rechazar todas las enmiendas presentadas en esta primera sesión de la jornada. Tan solo se ha registrado un intento de acercamiento a las propuestas de la oposición en el caso de una enmienda de EH Bildu sobre promoción turística por parte de los ayuntamientos de Bizkaia, si bien el acuerdo final no ha sido posible por la

discrepancia en torno a la cantidad asignada.

Como resultado del debate en comisión, el área que dirige el Diputado Foral Imanol Pradales llevará al Pleno del próximo 28 de diciembre en Gernika un presupuesto de 269 millones de euros, la segunda partida más alta entre los departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia. Este importe supone un incremento del 5% respecto a 2017, y representa el 21,9% del total departamental.

Una vez ha finalizado el debate, los grupos junteros de la oposición han reservado todas sus enmiendas parciales.